

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3855

EBAZPENA, 2015eko irailaren 1ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako idazkari nagusiarena, lankidetz-erakundeei laguntzak esleitzen dizkiena, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak 2015. urterako sustatze aldera.

Ebazpen honen bidez, azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuan biltzen diren aurreikuspenak betetzen dira, 2015erako. Dekretu horrek lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko (EHAA, 2008ko abenduaren 9koa, 235. zk.). Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, baina diru-laguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu behar dituzte.

197/2008 Dekretuak garapen-lankidetzarako euskal erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko. Horretarako, finantzatu egingo dira genero-arloko partaidetza-diagnostikoak eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoak.

Berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketaren prozesuak erakundeetan egingo diren gogoeta-jardun gisa definitzen dira. Jardun horiek ekarriko dute gaur egun dauden egiteko eta pentsatzeko moduak aldatzea, erakundearen funtzionamendu-eremu guztietan (estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, erakunde-kultura, eta abar) gertatzen diren genero-desberdintasunak desagerrarazteko.

Dekretu horretako 10. artikulua arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak egingo du laguntza-deialdia, eta hauek adieraziko ditu: laguntzen zenbatekoa, eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea, balorazio-irizpideak, formularioa eta Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziaren eta erakunde esleipendunaren arteko hitzarmen-eredua. Kasu honetan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da eskumen hori duen agintaritzaren, bi dekretu hauek aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, lehendakariarena; eta Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretua.

Bestalde, aipatutako dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziak kudeatuko ditu laguntzak; eta 15. artikulua arabera, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du eskatutako laguntzak eman ala ez.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman behar diren ebazpenak edo sinatuko diren hitzarmenak. Horretarako, bi lege-xedapen hauek beteko ditu: batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua, eta, bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Artezte Kontseiluaren oniritzia jaso zuela 2015eko martxoaren 10ean egindako bilkuran.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen bidez, lankidetzaren erakundeei 2015eko ekitaldian eman beharreko laguntze-tarako deialdia egiten da, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko. Laguntza horiek azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuan aurreikusita daude (EHAA, abenduaren 9koa).

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Deialdi honetara bideratutako diru-zuzkiduraren zenbateko orokorra 132.000 eurokoa da.

3. artikulua.– Laguntzak elektronikoki izapidetzea.

1.– Prozedura honen izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko, bide elektronikoak erabil ditzakete entitate interesdunek.

2.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaz eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenaz erregulatzen da izapidetze elektronikoa. Ebazpen horren bitartez, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen da.

Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak modu presentzialean nahiz elektronikoki nola izapidetu behar diren jakiteko xehetasunak eta eranskinak hemen eskura daitezke: <https://euskadi.eus> egoitza elektronikoa, eta www.elankidetzaren.euskadi.eus webgunean

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

2.– Laguntza-eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean Zerbitzuan), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean, atal guztiak behar bezala beteta.

Eskabideak, orobat, bide elektronikoaren bidez aurkeztu ahalko dira, egoitza elektronikoa honetan: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2015/ayudas_gba_2015/y22-izapide/eu

3.– Eskabideak eskabide normalizatuaren bidez egingo dira, zeina ebazpen honi erantsirik baitago eta egoitza elektronikoa honetatik ere eskura baitaiteke: https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/2014/ayudas_gba_2014/y22-izapide/eu.

4.– Eskabideak, eranskinetan zehaztutako agiriekin batera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara helarazi beharko dira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Nafarroa kalea 2
01007 Vitoria-Gasteiz.

5.– Eskabidean dauden agiriekin batera, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako proposamena (Generoaren partaidetza-diagnostikoa eta Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plana) erantsi beharko du erakunde eskatzaileak, ebazpenaren I-A eranskinetako eskabide

normalizatuaren bidez, edo, hala badagokio, Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako proposamen teknikoa (Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plana), I-B eranskineko ereduaren bidez.

5. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

1.– Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio diru-laguntza lerro hau kudeatzeko atazak egitea. Agentziaren antolakuntza- eta jarduera-araudia ezartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 17.a) artikuluan xedatzen denez (EHAA, apirilaren 9koa), Agentziaren Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak egingo ditu laguntza-eskabideen analisi teknikoa eta balorazioa; gero, horren berri emango dio Balorazio Batzordeari, zeinak, horretarako bildu eta gero, dagozkion laguntzak ematea proposatuko baitu.

2.– Balorazio Batzordeko kide dira Ekonomia, Aurrekontua eta Langileak Kudeatzeko Zerbitzuko arduraduna, Koordinazio Estrategikoaren Zerbitzuko arduraduna, Zerbitzu Juridikoko arduraduna eta Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuko arduraduna. Batzorde horrek kide hauek izango ditu:

- Batzordeburua:

Ainara Arrieta Archilla.

- Batzordekideak:

Nicolas Basarrate Hormaetxea.

Amaia Etxabari Saiz.

- Idazkaria:

Ana Rojo Gonzalez.

6. artikulua.– Baremazio-irizpideak.

1.– Eskatutako betebeharrak guztiak dituzten eskaerak 0tik 100era bitarteko eskala baten arabera baloratuko dira, ebazpen honetako I., II. eta III. eranskinetan ezartzen den baremazio-taula oinarritzat hartuta:

– II. eranskina: prozesuak bideratuko dituen kanpoko pertsona fisiko edo juridikoa hautatzeko irizpide aplikagarriak.

– III. eranskina: genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak baloratzeko irizpide aplikagarriak.

2.– Eskabideak handitik txikira ordenatuko dira, lortutako puntuazioaren arabera. Onetsiak izateko, programek gutxienez 50na puntu lortu beharko dute.

7. artikulua.– Hitzarmena sinatzea.

Diru-laguntza onartu ondoren, onartutako diru-laguntzetarako hitzarmena sinatu beharko dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakunde esleipendunak, IV. eranskinetan agertzen den ereduaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan berriaz xedatuta ez dagoen ororako, honako hiru hauetan jasotako xedapenak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura

2015eko irailaren 11, ostirala

Erkidearen azaroaren 26ko Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua; eta genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzera-kundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen azaroaren 25eko 197/2008 Dekretua.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek bukaera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 1a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

2015eko irailaren 11, ostirala



Imprimatu

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

I. Eranskina

GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAMENDU ALDAKETAKO PROZESUAK
SUSTATZEKO LANKIDETZA ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

(*) nahitaezko eremuak

Prozedura kudeatzen duen administrazio-organoa

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Datu pertsonalak *

Izena (Estatutuen araberrako izen osoa adierazi):

Identifikazio zenbakia (IFK, NAN): _____

Helbidea: _____ P.K.: _____

Herria: _____ Lurraldea: _____

Telefonoa: _____

Helbide elektronikoa (e-mail): _____

Webgunearen helbidea: _____

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

 Posta bidezkoa

Helbidea * _____ Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK * _____ Udalerria * _____ Probintzia * _____

País * ESPAÑA Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

 Euskara Gaztelania

2015eko irailaren 11, ostirala

Abisuak jasotzeko datuak *

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide _____

SMSa: _____

Dirulaguntza eskatzen den ildo *

Generoko Partaidetza-Diagnostikoa eta berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa

Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa

Eskabideari buruz jarduteko erakundearen pertsonaren identifikazio-datuak

Izen - abizenak: _____

Lanpostua eta kargua: _____

Telefonoa: _____

Helbide elektronikoa (e-mail): _____

Prozezuaren dinamizazio taldea

Kanpoko dinamizatzaile gisa proposaturiko pertsona edo erakundea:

Erakunde eskatzailearen Genero Erreferente gisa izendatutako pertsona:

Erakunde Eskatzailearen Generoari buruzko Barne Taldea osatzen duten pertsonak (*izena eta kargua*):

2015eko irailaren 11, ostirala

Iraupena

Hasteko aurreikusitako data: _____

Amaitzeko aurreikusitako data: _____

Osorik burutzeko epea (hilabeteak) : _____

Proiektuaren finantzazioa

Kostua (guztira) (euro): _____

Eskatutako diru-laguntza (euro) : _____

(1) Genero-arloko partaidetza diagnostikoa bideratzeko zerbitzuen kostua _____

(2) Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa bideratzeko zerbitzuen kostua _____

(1) Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoarentzat bakarrik dirulaguntza eskatzen bada, alde batera utzi

(2) Prestakuntza-prozesutik eratorritako kostuak baldin badaude partida honetan sartu behar dira

Erakunde eskatzaileari dagozkien erantzukizunpeko adierazpenak

Euskal erakunde eskatzaileak edo EAeko ordezkariak iraunkorrak ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zehapen administratibo edo penalik, sexuaren ziozko bereizketa egiteagatik jarritakoak barne, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

Eskabide honetako datuak eta erantsitako agiriak egiazkoak dira.

Erakunde eskatzaileak edo EAeko ordezkariak laguntza hauen onuradun izateko indarreko araudian ezarritako eskakizunak betetzen ditu, hori egiaztatzen duten agiriak baditu eta diru-laguntzaz gozatzeari dagokion aldian horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.

Erakunde eskatzaileak, gutxienez, kontratupeko hiru pertsona ditu erakundearen.

Erakunde eskatzailearen konpromisoak

- Diru-laguntza esleitzeko eskatutako eta aintzat hartutako eskakizunei eragiten dien edozein aldaketaren berri Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari jakinarazteko konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.
- Dirulaguntza jaso duen ekintza dela eta dokumentu, testu eta sustatze elementuetan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza aipatzeko konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.
- Genero berdintasunaren aldeko erakunde aldaketarako prozesuaren fase guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak, betiere parte hartzeko ezarritako metodologiari jarraiki
- Finantzatutako prozesua Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatutako kanpoko ebaluaketa prozesuaren menpe egon daitekeela badakien eta onartzen duen konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.
- Genero berdintasunaren aldeko erakunde aldaketarako prozesuan duen partaidetza argitara emango duen konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak
- Prozesuak irauten duen bitartean sortzen den dokumentazioan ez ezik egiten diren memoria eta txostenetan ere hizkuntza ez-sexistaren erabilera egiaztatzeko konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.
- Aurrean den eskaeran erantsitako CVeko kanpoko pertsona edo erakunde bideratzaile horrek Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak antolatutako prestakuntza-prozesuan parte hartuko duelako konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.

Aurretik entregatutako dokumentuak

(1) Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

(1) Beherago dagoen "Eskatutako dokumentuak" zerrendan (*) batez markatutako agiriak soilik, aurkezten den lehen aldia EZ BADA eta EZ BADAGO aurreko urteekiko aldaketarik.

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

+ Dokumentu berria gehitu

2015eko irailaren 11, ostirala

Eskatutako dokumentuak	Igotako dokumentua
<p>Txosten teknikoa - I-A eranskina. Genero Partaidetza-Diagnostikoa eta berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren finantziatorako formulario teknikoa - ahal bada euskarri digitalean- bertan adierazitako argibideak jarraituta osatuz.</p>	
<p>Txosten teknikoa - -B eranskina. Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren finantziatorako formulario teknikoa - ahal bada euskarri digitalean- bertan adierazitako argibideak jarraituta osatuz.</p>	
<p>(*) Estatutuak - Erakunde eskatzailearen estatutu originalak edo hauen fotokopia konpultsatua.</p>	
<p>(*) Ziurtagiria - Dagokion Erregistroko inskripzioa, originala edo fotokopia konpultsatua, non gutxienez eskabidea aurkezteko eguna baino bost urte lehenago erregistratuta dagoela egiaztatzen den.</p>	
<p>(*) Ahalordetze-eskritura(Notario-ahalordea) - Eskaera aurkezten duen erakunde eskatzailea EAEn ordezkatzen duen pertsonaren ahalorde originala edo honen fotokopia kautotuta/kompultsatua.</p>	
<p>(*) Identifikazio fiskal kodea (IFK) -Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren originala edo fotokopia kautotuta/kompultsatua</p>	
<p>Organigrama - Erakundearen Antolaketa Egiturari buruzko dokumentua, arautzen duen dekretuan 6.g) artikulua aipatzen dituen alderdiei buruz informazioa ematen</p>	
<p>Iazko jardueren memoria- Erakunde eskatzaileak aurretik emakumearen alde eta/edo genero-berdintasunaren alde egindako lanaren azalpen-memoria.</p>	
<p>Deskripzio-memoria-Genero Erreferentearen, Generoari buruzko Barne Taldearen eta prozesuan parte hartzen duen erakundeko langileen eginkizunen liberazio-sistema ezartzen duen memoria.</p>	
<p>Curriculum Vitae - Curriculum eta II. Eranskinean ezarritako baremazio-irizpideetan jasotako alderdiak frogatzeko behar diren dokumentuak.</p>	
<p>Proformako faktura -Diagnostikoa errazteko zerbitzuen pro-forma faktura (<i>Dirulaguntza genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikorako soilik eskatu bada, alde batera utzi</i>).</p>	
<p>Proformako faktura - Plana errazteko zerbitzuen pro-forma faktura.</p>	
<p>Txostena - Erakunde eskatzailearen generoari buruzko partaidetza-diagnostikoaren kopia -ahal bada euskarri digitalean.</p>	
<p>Egindo diren jardueri buruzko txostena - Partaidetza-diagnostikoaren lantze-prozesuaren memoria zehatza, arreta berezia jarritz prozesuan erabilitako metodologian eta prozesuan izandako partaidetzan. Betiere, III. Eranskinean ezarritako baremazio-irizpideen arabera. Ahal bada euskarri digitalean.</p>	

2015eko irailaren 11, ostirala

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (GSDO)

Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (Foru-aldundiak + AEAT)

Laguntzak behar bezala esleitzeko, adierazitako datuak erkatu eta beharrezko direnak egiaztatu ahal izango ditu Administrazio publikoak.

_____ (e)n, _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

2015eko irailaren 11, ostirala



I-A. ERANSKINA

GENEROKO PARTAIDETZA-DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA-PLAN ESTRATEGIKOA FINANTZATZEKO FORMULARIO TEKNIKOA

1.– Justifikazioa eta aurreikusitako eragina.

1.1.– Ekimenaren aurrekarien deskribapena eta erakundeak aurretik genero-berdintasunaren arloan egindako lanaren deskribapena, hau da, antolamendu-eremuan, eremu estrategikoan eta teknikoan, eta emakumeen erakundeekin eta/edo mugimendu feministarekin egindako aliantzetan.

1.2.– Justifikazioa: genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuaren finantzaketa-eskabidea egiteko arrazoiak modu laburrean adieraztea.

1.3.– Erakundearen prozesu-amaierarako lortzea espero diren helburuak eta aurrerapenak, aldeztu aurretik, adieraztea.

2.– Partaidetza-metodologia.

2.1.– Genero-arloko partaidetza-diagnostikoaren eta berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren lantze-prozesuan erabiliko diren metodologia eta ikerketa-teknikak azaltzea. Arreta berezia eskainiko zaio teknika horien partaidetza-izaera argumentatzeari.

2.2.– Aipatutako metodologiak erabiliz, prozesuaren fase guztietan erakundearen partaidetza-maila altua nola lortuko den justifikatzea. Erakundearen barruan prozesuaren partaidetzari buruz dauden konpromisoak azaltzea, termino kuantitatibo zein kualitatiboetan.

3.– Lan-plangintza.

3.1.– Diagnostiko-fasean nola lortuko da Dekretuak zehaztutako zortzi arlo tematikoei buruzko informazioa?. Nola landuko da berdintasunaren aldeko ekintza-plana?.

2015eko irailaren 11, ostirala



3.2.– Proposamena gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak zehaztea. Proposamenaren kudeaketa eta logistika azaldu.

3.3.– Kronograma: partidetza-diagnostikoaren eta ekintza-planaren lantze-prozesuan aurreikusitako faseak eta ekintzak ahal den zehatzena deskribatu.

4.– Aurrekontu-taula.

Partidak	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Zuzeneko kostuak:	
A. I.- Diagnostikoa bideratzeko zerbitzuak.	
A. II.- Plana bideratzeko zerbitzuak.	
Zeharkako kostuak:	
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak	
Zeharkako kostuak, guztira	
Guztizkoa, oro har	

5.– Jarraipen-sistema.

Aurretik ezarritako helburuak prozesuan zehar betetzen direla bermatzeko aurreikusi diren jarraipen-mekanismoen adierazpena.

2015eko irailaren 11, ostirala



I-B ERANSKINA

BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA-PLAN ESTRATEGIKOA FINANTZATZEKO FORMULARIO TEKNIKOA

1.– Justifikazioa eta aurreikusitako eragina.

1.1.– Ekimenaren aurrekarien deskribapena eta erakundeak aurretik genero-berdintasunaren arloan egindako lanaren deskribapena, hau da, antolamendu-eremuan, eremu estrategikoan eta teknikoan, eta emakumeen erakundeekin eta/edo mugimendu feministarekin egindako aliantzetan.

1.2.– Justifikazioa: genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuaren finantzaketa-eskabidea egiteko arrazoiak modu laburrean adieraztea.

1.3.– Erakundearen prozesu-amaierarako lortzea espero diren helburuak eta aurrerapenak, aldeztatik, adieraztea.

2.– Genero-arloko partaidetza-diagnostikoa.

2.1.– Genero-arloko partaidetza diagnostikoan Dekretuak zehaztutako zortzi arlo tematikoei buruz azaltzen den informazio garrantzitsuena laburbilduta aurkeztea (Politikak, berdintasunean aldeztatik egindako lanaren ibilbidea, antolamendu-kultura, barruko lan-prozesuak, erabakiak hartzea, komunikazioa eta ikaskuntza, pertsonen kudeaketa, eta jarrerak).

2.2.– Zer metodologia erabili diren diagnostiko hori egiteko? Arreta berezia jarri partaidetza-izaera duten metodologietan.

2.3.– Nola lortu diren langileen partaidetza-kuota handiak diagnostikoaren lantze-prozesuan?

2015eko irailaren 11, ostirala



3.– Partaidetza metodologia.

3.1.– Berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren lantze-prozesuan erabiliko diren metodologia eta ikerketa-teknikak azaltzea. Arreta berezia eskainiko zaio teknika horien partaidetza-izaera argumentatzeari.

3.2.– Aipatutako metodologia erabilita, berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren lantze-prozesuan erakundearen partaidetza-kuota altua mantentzea nola lortuko den justifikatzea. Erakundearen barruan prozesuaren partaidetzari buruz dauden konpromisoak azaltzea, termino kuantitatibo zein kualitatiboetan.

4.– Lan-plangintza.

4.1.– Nola bermatuko da jasotzea, aurreikusitako lan-plangintzaren bidez, Dekretuak zehazten dituen hiru ildo estrategikoetako genero-berdintasunaren aldeko ekintzak? Hiru ildo horiek honako hauek dira: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea, emakumeak ahalduz mantentzea, eta erakundearen mainstreamingua integratzea.

4.2.– Proposamena gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak zehaztea. Proposamenaren kudeaketa eta logistika azaldu.

4.3.– Kronograma: partaidetza-diagnostikoaren eta ekintza-planaren lantze-prozesuan aurreikusitako faseak eta ekintzak ahal den zehatzera deskribatu.

5.– Aurrekontu-taula.

Partidak	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Zuzeneko kostuak:	
A. I.- Plana bideratzeko zerbitzuak	
Zeharkako kostuak:	
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak	
Zeharkako kostuak, guztira	
Guztizkoa, oro har	

6.–Jarraipen-sistema.

Aurretik ezarritako helburuak prozesuan zehar betetzen direla bermatzeko aurreikusi diren jarraipen-mekanismoen adierazpena.

II. ERANSKINA

HAUTATZE-IRIZPIDE APLIKAGARRIAK

A) PROZESUAK BIDERATUKO DITUEN KANPOKO PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOA HAUTATZEKO IRIZPIDE APLIKAGARRIAK ⁽¹⁾

(1) Erakunde eskatzaileak egiaztatu beharko du proposatutako pertsona fisikoak edo juridikoak 50 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditu duela, prozesurako laguntza-eskaera aurkeztu duenerako. Kontratazio-proposamena pertsona juridiko batena denean eta taula honetan zehazten diren irizpideak kontuan hartuz, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesua sustatzeko ardura zuzena duten erakunde horretako pertsona guztiak barematuko dira, guztira 50 puntuko gutxieneko puntuazioa gaindituz. Kontratazio-proposamena pertsona fisiko bat baino gehiagorena denean eta taula honetan zehazten diren irizpideak kontutan hartuz, pertsona horietako bakoitza barematuko da, bakoitzak 50 puntuko gutxieneko puntuazioa gaindituz.

1.– ESPERIENTZIA (gehienez 45 puntu):

1.1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak genero-diagnostikoak eta/edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak egiten duen esperientzia. Erakunde bateko kide guztien, eta bertan nagusi diren harremanen eta iritzien berrikuste sistematikoaren partaidetza-prozesu gisa definitzen da genero-diagnostikoa, eta haren helburua da erakunde horretan ikusten diren genero-desberdintasuneko modu partikularrak eta espezifikoak antzematea. Berdintasun-planaren definizioa honako hau da: partaidetza-diagnostikoan atzemandako genero-desberdintasunak desagerrarazteko, mainstreaminga garatzeko eta erakundeetan emakumeen ahalduntzea sustatzeko bultzatuko diren ikuspegia eta jardun-norabideak (gehienez 20 puntu):

1.1.1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez hiru genero-diagnostikotan eta hiru emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planetan egile gisa parte hartu duela frogatzea (15 puntu).

1.1.2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plan batean eta/edo gutxienez genero-diagnostiko batean egile gisa parte hartu duela frogatzea (5 puntu).

1.1.3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez GGKE batean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plan batean eta/edo gutxienez genero-diagnostiko batean egile gisa parte hartu duela frogatzea (5 puntu gehigarri).

1.1.4.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak genero-diagnostikotan edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planetan egile gisa parte hartu duenik ez frogatzea (0 puntu).

1.2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak GGKEekin edota gizarte-erakundeekin izandako lan-esperientzia (gehienez 15 puntu):

1.2.1.– Prozesua dinamizatuko duen pertsona fisikoak edo juridikoak GGKE batean, genero-erreferente gisa kontratatua, gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea (15 puntu).

1.2.2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea, GGKE batean langile tekniko kontratatu gisa, eta erakunde horretan



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

egondako denboraldian generoari buruzko barne-taldean edo antzeko taldeetan parte hartu duela frogatzea (10 puntu).

1.2.3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea GGKE batean langile tekniko kontratatu gisa (8 puntu).

1.2.4.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea gizarte-erakundeetan langile tekniko kontratatu gisa (6 puntu).

1.2.5.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea GGKEetan edo gizarte-erakundeetan boluntario gisa (4 puntu).

1.2.6.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak GGKEetan edota gizarte-erakundeetan lan-esperientziarik ez frogatzea, ez ordaindutako lanetan ezta boluntario gisa ere (0 puntu).

1.3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeari dagokionez izandako esperientzia (gehienez 10 puntu):

1.3.1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez hiru prozesu parte-hartzaile dinamizatu dituela frogatzea (10 puntu).

1.3.2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez prozesu parte-hartzaile bat dinamizatu duela frogatzea (5 puntu).

1.3.3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeari dagokionez esperientziarik ez frogatzea (0 puntu).

2.– PRESTAKUNTZA (gehienez 45 puntu):

2.1.– Kanpoko pertsona fisikoaren edo juridikoaren prestakuntza eta ezagutza generoan eta garapenean edota garapenerako lankidetzan (gehienez 20 puntu):

2.1.1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak genero eta garapenean eta baita garapenerako lankidetzan ere graduondoko ikastaroak egin izana (20 puntu).

2.1.2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak aurretik aipatutako bi gaietako bati buruz graduondoko ikastaro bat egin duela eta gutxienez 150 orduko prestakuntza duela frogatzea (15 puntu).

2.1.3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak aurretik aipatutako bi gaietako bati buruz (genero eta garapena edo garapenerako lankidetzan) graduondoko ikastaro bat egin duela frogatzea (10 puntu).

2.1.4.– Kanpoko pertsona fisiko edo juridikoak genero eta garapenean gutxienez 150 orduko prestakuntza duela frogatzea (5 puntu).

2.1.5.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak aurretik aipatutako bi gaietako bati buruz ez frogatzea, ez prestakuntzarik, ezta ezagutzarik ere (0 puntu).

2.2.– Kanpoko pertsona fisikoaren edo juridikoaren prestakuntza eta ezagutza emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaiari buruz (gehienez 15 puntu):

2.2.1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko graduondoko ikastaro bat egin duela frogatzea (15 puntu).

2.2.2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz gutxienez 150 orduko prestakuntza duela frogatzea (5 puntu).

2.2.3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz ezagutzarik ez frogatzea (0 puntu).

2.3.– Kanpoko pertsona fisikoaren edo juridikoaren prestakuntza eta ezagutza partaidetza-metodologiei buruz eta partaidetza-prozesuen kudeaketari buruz (gehienez 10 puntu):

2.3.1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak partaidetza-metodologiak erabiltzea eta partaidetza-prozesuak kudeatzea helburu duen graduondoko ikastaroa egina izatea (10 puntu).

2.3.2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak partaidetza-metodologiari buruz eta partaidetza-prozesuen kudeaketari buruz gutxienez 150 orduko prestakuntza duela frogatzea (5 puntu).

2.3.3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak partaidetza-metodologiari buruz eta partaidetza-prozesuen kudeaketari buruz ezagutzarik ez frogatzea (0 puntu).

3.– HOMOLOGAZIOA (gehienez 10 puntu):

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak emandako aholkularitza-homologazioa edukitzea.

3.1.– Erakundeak edo pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak emandako aholkularitza-homologazioa duela frogatzea (gehienez 10 puntu).

3.2.– Kanpoko erakunde fisikoak edo juridikoak Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak emandako aholkularitza-homologazioa ez edukitzea (0 puntu).

B) GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAMENDU-ALDAKETAKO PROZESU ESKAEREN HAUTATZE-IRIZPIDE APLIKAGARRIAK

1.– PARTAIDETZA METODOLOGIA (gehienez 60 puntu):

1.1.– Erabili beharreko tekniken eta metodologiaren garapena (gehienez 15 puntu):

1.1.1.– Erabili beharreko ikerketa-teknikak garatzea (gehienez 15 puntu).

1.1.2.– Erabili beharreko ikerketa-teknikak ez garatzea (0 puntu).

1.2.– Partaidetza-metodologiaren erabilera (gehienez 15 puntu):



1.2.1.– Partaidetza-metodologiak erabiltzea eta horien egokitasuna argumentatzea genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuen diagnostikoak eta planak egiteko (gehienez 15 puntu).

1.2.2.– Ez badira partaidetza-metodologiak erabiltzen eta horien egokitasuna argumentatzen eskaera baztertu egingo da.

1.3.– Partaidetza-maila handiaren bermea (gehienez 15 puntu):

1.3.1.– Prozesuan erakunde osoaren partaidetza-maila handia lortzeko jarraituko den metodologia adieraztea (gehienez 15 puntu).

1.3.2.– Ez bada prozesuan partaidetza-maila handia lortzeko jarraituko den metodologia adierazten eskaera baztertu egingo da.

1.4.– Prozesuaren fase guztietako partaidetza (gehienez 15 puntu):

1.4.1.– Deskribatutako prozesuaren fase bakoitzean aurreikusitako partaidetza adieraztea (gehienez 15 puntu).

1.4.2.– Ez bada prozesuaren fase bakoitzean aurreikusitako partaidetza adierazten eskaera baztertua egingo da.

2.– PROPOSAMENAREN KOHERENTZIA ETA BIDERAGARRITASUNA (gehienez 40 puntu):

2.1.– Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak (gehienez 15 puntu):

2.1.1.– Proposamenak, ondo deskribatzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak edukitzea eta horiek proposamena aurrera eramateko egokiak izatea (gehienez 15 puntu).

2.1.2.– Proposamena gauzatzeko deskribatzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak nahikoak ez izatea (0 puntu).

2.2.– Genero-berdintasunaren diagnostikorako (1) eta berdintasunaren aldeko ekintza-planerako lan-plana (gehienez 15 puntu):

⁽¹⁾Berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikorako bakarrik eskatzen duten proposamenentzako, diagnostikorako lan-plana alde batera utzi.

2.2.1.– Genero-berdintasunerako partaidetza-diagnostikoaren lan-plana definitzea baita berdintasunaren aldeko ekintza-planarena ere (Dagokion dekretuak araututako zortzi lan-arloei buruzko informazioa nola lortu zehaztea) (gehienez 15 puntu).

2.2.2.– Aurreikusitako lan-plana ez garatzea (0 puntu).

2.3.– Kronograma (gehienez 10 puntu):

2.3.1.– Prozesu guztia aurrera eramateko ondo zehaztutako kronograma aurkeztea eta proposamenari egokitutakoa izatea (gehienez 10 puntu).

2.3.2.– Kronogramarik ez aurkeztea (0 puntu).



III. ERASKINA

FINANTZAKETA BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA-PLAN ESTRATEGIKORAKO BAKARRIK ESKATZEN DUTEN PROPOSAMENEN GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO DIAGNOSTIKOA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1.– EZARRITAKO ZORTZI ARLO TEMATIKOEI BURUZKO INFORMAZIOA (gehienez 60 puntu):

- 1.1.– Aurkeztutako diagnostikoak modu sakonean aztertzen ditu Dekretuak ezartzen dituen zortzi arloak (politikoa, berdintasunean alde zuzenak egindako lanaren ibilbidea, antolamendu-kultura, barruko lan-prozesuak, erabakiak hartzea, komunikazioa eta ikaskuntza, pertsonen kudeaketa, eta jarrerak) (gehienez 60 puntu).
- 1.2.– Aurkeztutako diagnostikoak ez badu zortzi lan-arloei buruzko behar adina informazio ematen, eskaera baztertu egingo da.

2.– ERAKUNDEKO KIDEEN PARTAIDETZA (gehienez 20 puntu):

- 2.1.– Diagnostikoa lantzeko prozesuan erakundeko kide gehien partaidetza bermatzen da (gehienez 20 puntu).
- 2.2.– Ez da bermatzen erakundeko kide gehien partaidetza diagnostikoa lantzeko prozesuan (0 puntu).

3.– PARTAIDETZA-METODOLOGIEN ERABILERA (gehienez 20 puntu):

- 3.1.– Diagnostikoa lantzeko prozesuan partaidetza-metodologiak erabili direla bermatzen da (gehienez 20 puntu).
- 3.2.– Diagnostikoa lantzeko prozesuan ez bada erakundeko kide gehien partaidetza bermatzen, eskaera baztertu egingo da.

2015eko irailaren 11, ostirala



IV. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA BAKOITZERAKO, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK SINATU BEHARREKO HITZARMENA

Vitoria-Gasteiz, 2015ekoarena.

HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria den aldetik, haren izenean eta ordeztuz (aurrerantzean, GLEA).

Bestetik, jaun/andrea, erakunde esleipendunaren legezko ordezkaria den aldetik, haren izenean eta ordeztuz.

HAU ADIERAZTEN DUTE:

1.– 2015eko _____aren _____(e)ko Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren Ebazpenaren arabera, 2015erako Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeei zuzendutako laguntzen deialdia zabaldu da.

2.– 2015eko _____aren _____(e)ko GLEAko zuzendariaren Ebazpenaren arabera, _____ erakundeari _____ euroko diru-laguntza aitortu zaio, _____ espediente zenbakia duen « _____ » genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketetarako prozesua finantzatzeko.

3.– Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-antolaketarako prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeei zuzendutako laguntzak arautzen dituen azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera (EHAA, abenduaren 9koa, 235. zk.), GLEAk eta erakunde esleipendunak finantzazio hitzarmena honako klausula hauen arabera gauzatzea erabaki dute:

KLAUSULAK:

LEHENENGOA.– Hitzarmen honek GBA-2015BA/_____ erreferentzia duen genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuaren finantzaketa soilik hartzen du eraginpean, _____ eurotako guztizko aurrekontua duena eta GLEAko zuzendariaren 2015eko _____aren _____(e)ko Ebazpenaren arabera onartua.

BIGARRENA.– **(Baldin eta emandako diru-laguntza genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuaren bi zatietarako bada, hau da, Diagnostikorako eta Planerako)** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak _____ euro ordainduko ditu guztira, bi ordainketatan. Lehenengoa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 60koa, hitzarmena izenpetzen den unean. Bigarrena, diru-laguntzaren % 40koa, diru-laguntzaren % 40a gauzatu izanaren txostena eta egiaztagiria aurkeztu ondoren. Prozesuaren aurrekontu osoa eta onartua _____ euro da.

BIGARRENA.– **(Baldin eta emandako diru-laguntza genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuaren zati bakar baterako bada, genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa)** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak _____ euro ordainduko ditu, ordainketa bakar batean, diru-laguntza osokoa, hitzarmena izenpetzen den unean.

2015eko irailaren 11, ostirala



HIRUGARRENA.– Erakunde esleipendunak:

- Hitzarmen hau eta indarreko araudia beteko ditu azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren arabera. Dekretu horren bidez arautzen dira genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzak-erakundeei bideratutako laguntzak. Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2015eko XXXaren XX(e)ko laguntzen deialdia egiten duen Ebazpena ere beteko du.
- Jarraipen-txostenak aurkeztuko ditu azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 24. artikuluan xedatzen denaren arabera eta www.elankidetzak.euskadi.eus webgunean eskuragarri dagoen formatuan.
- Erakundeak, aurretik aipatutako dekretu arautzailearen 23. artikuluan xedatzen denaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari proiektuaren aurreikusitako garapenari funtsezko aldaketarik eragiten dion edozein gertaera jakinarazi behar dio.

LAUGARRENA.– Erakunde esleipendunak _____ banku-kontua (20 digituak adierazi behar ditu, baita erakundearen izena eta helbidea ere) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko berariazko kontu gisa baliatuko du.

BOSGARRENA.– Erakunde esleipendunak adierazi du prozesuaren benetako hasiera-data _____ dela (benetako hasiera-data idatzi behar da). Data hori formulazio-eredukoa ez bada, hitzarmen hau sinatzen den egunekoa baino geroagokoa izan behar du, eta 2015eko abenduaren 30ekoa baino lehenagokoa.

SEIGARRENA.– Erakunde esleipendunak onartzen du finantzatutako prozesuak amaitu ondoren ebalua daitezkeela azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ebaluazio hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak koordinatuko du, baina helburu horretarako kontratatutako kanpoko lantalde edo pertsona batek egingo du.

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen du.

<p>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia:</p> <p>Izp.: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria</p>	<p>Erakunde esleipenduna:</p> <p>Izp.: XXXXXXXXXX</p>
---	--